

tzeak sekulako ilusioa egiten diona, eta, niri, behin hona iritsita, lotsa ere emango lidake aurkeztea. Zertarako aurkeztuko naiz dagoeneko bere funtzioan sinisten ez dudan txapelketa batera? Ez dudanean aportatzeko ezer? Norberak egin behar du hausnarketa hori, eta nik egin dut. Baina nire buruarekin tratua egin dut, eta ez dut haserretu behar desafio honen ideia gaizki hartzen duen inorekin.

Gatozen desafiara: ekainaren 14an, Elizondoko Lur aretoan. Hasiera batean horrela jarri dugu, igandez, garai batean hala jokatzeko zirelako desafioak. Baina dena dago hitz egiteko, akaso larunbatera aldatuko dugu... Dena daukat Juliorekin hitz egiteko. Printzipioz berak onartu egin du eta aurrerantzean hitz egingo dugu.

Zergatik aukeratu duzu desafio formatu hori? Desafioaren filosofia ondorengo da: elkar hartuz, broman jardutea helburu duen zerbait egitea. Luze jardun gaitezke desafio kontzeptuaz beraz, baina bertsolaritzan erronka ikusi nahi ez duenak belarriak tapatu behar ditu, hori baita bertsolaritzaren funtsa. Eta hau esaten dut 150 ekitalditan 150 bertso antzu abestu eta gero. Bertsoak ez dira manifaren bukaeran abesteko apaingarriak. Edo idazten dira, eta behin eta berri irakurtzeko modua ematen dute horrela; edo arrazoietan gehiago zein den neurtzeko balio dute. Hala izan da gaur arte eta hala izaten segitu behar du. Bertsolaritzaren milaka urteko funtsa izan den erronka ezabatzeko prozesu batean baldin bagaude, abisatu dezatela mesedez. Bitartean, bertsolaritzak lehia izaten segituko du.

Aurrekari historikoak ere topatu dituzu. Nafarroako bertsolaritza jendaurrea berri agertu zen legezko ekitaldi bat bezala Elizondoko 1936ko bertso gudu ezagunarekin. Mariano Izetaren euskararen aldeko lehen ekin-tza izan zela uste da –nire lehen



txapela Mariano Izetak jantzi zidan–. Bertso gudu famatu hura 1936ko urtarrilean jokatu zen. Inazio Eizmendi *Basari* aritu zen gaiak jartzen eta lehian, honakoak: Mixel Dargaitz, Patxi Elorga, Joanes Harriet *Premundo*, Joanes Ibarra, Ximun Ibarra *Zubikoa*, Martzel Larrosa, Jose Mari Mutuberria eta Beltran Sahargun. Baztango bertsolariak ziren denak. Eta bistan da prest zeudela arrazoietan elkarren kontra lehia-tzeko. Kontua ez da nork duen arrazoa eta nork ez, baizik eta une horretan nork asmatzen

«Oraintxe badakit ezin dudala Juliok finalean egin zuen adina egin, baina tentagarriena hori da, helmuga berri bat jarri didala, eta horrek asko motibatzen nau»

duen arrazoirik onenak ekar-tzen. Garai hartako desafio horien berri izanda, iruditzen zait gaur egun ere bertso desafio bat-ek ekarpen interesgarria egin dezakeela. Nire ni bertsolaria-rentzat baliagarria bada, ja nahikoa irudituko zait.

Desafioa ondo zehaztu gabe badago ere, berrogeita hamarna bertso aipatu dituzu. Tira, kopuruak eta zehaztuko ditugu, baina ez da hainbeste. Edozein saiotan berrogeita ham-mar baino gehiago kantatzera irits gaitezke. Nik buruan dau-

kat saioa hiru denbora bloke-tan banatzea, tartean atsedena-ldiak jarriaz. Eta Juliori pro-posatu behar diot ofizio batzuetan aritzeko bakoitzak bertsokide bat eramatea. Baina, esanda bezala, hori guztia hitz egiteko daukagu.

Bertso desafiara, eta Silveirari ez zaio galtzea gustatzen. Egia da, eta irabazten ez dakit.

Baina Elizondoko finalean ikusitako Julio Sotori irabazteko asko egin behar da bertsotan. Bai, badakit. Lan asko egin behar da. Eta egia da lana eta di-ziplina ez zaizkidala asko gusta-tzen, eta ulertzen ez baditut, are gutxiago. Oraintxe ikasi dut, esaterako, etxeko sua piztu be-harraren diziplina. Sei hilabete daramat egunero egiten. Lehen egunean, ni bezalako norbaitek pentsatu behar balu hurrengo sei hilabetetan egunero egin be-harko lukeela, segur aski ez luke egingo. Eta, tira, egin dut, eta oraindik ez zait lana denik iru-ditu ezta goiz batean ere.

Datozen bi hilabete eta er-dian Julio Soto gailentzeko egin beharko dudan lan guztiaren kontziente naiz. Baliabideak ja-rri ditut, eta eguneroko nire bi-zitzaren parte dibertigarri eta beharrezkoena izango dela uste dut, eta egingo dudala uste dut. Oraintxe badakit ezin dudala Juliok finalean egin zuen adina egin, baina tentagarriena hori da, helmuga berri bat jarri dida-la, eta horrek asko motibatzen nau. Nik oraindik ez diot irabazi finalean entzun genuen Julio bezain ona den norbaiti, eta ho-rrek asko motibatzen nau.

Desafioa hor dago. Eta? Saio gehiago egingo dituzu? Zirkuitu berri bat sortu? Momentuz ez dut bertso saioe-tara enkarguz joaten hasteko asmorik. Zirkuitu berri bat sor-tzekotan, ez dut nik sortuko. Ba-daukat sentsazioa desafioen is-torio honek kate bat ekarriko duela atzetik, desafio gehiago etorriko direla. Hori gertatuko da gure baitan ditugun bertso-lariek ados jarri eta horretara joatea erabakitzen dutenean.